

BI MILA ETA HAMAHIRUKO EKAINAREN 10EAN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA. /ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE ETXARRI ARANATZ EL DÍA DIEZ DE JUNIO DE DOS MIL TRECE

2013ko ekainaren 10en, 20:30ean, Etxarri Aranazko Udalak Ezohiko Osoko Bilkurara arauzko moduan deitu, eta lehenengo deian osatu da, JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA alkatea mahaiburua dela, eta honako zinegotzi hauek bertaratuak.

En Etxarri-Aranatz y casa consistorial, siendo las veinte horas y treinta minutos del día 10 de junio de dos mil trece se reúnen los concejales en sesión plenaria extraordinaria, tras haber sido convocada la misma en forma legal, bajo la presidencia de la Sra. Alcalde-Presidente D. Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena y con la asistencia de los siguientes concejales:

Bertaratu direnak / Asisten:

**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.
ENEKA MAIZ ULAYAR and
EDURNE IGOA LIZARRAGA and
KITZ MENDIOLA BARANDALLARA and.
MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.
MAIDER GOÑI ERRAZKIN and
JUAN ANTONIO EXTREMERA APESTEGIA jn.**

Bertaratu ez direnak / No asisten

**ARANTZA ARTIEDA IGOA
IÑIGO LAZKOZ LEKUONA**

Behin-behineko idazkaria /Secretario accidental

Imanol Goñi

Alkateak azaldu du, aurreko bileran eskatu zen bezala, gaurko bileran Koldo Azkonak, Sakanako Mankomuniteko itzultzaileak itzulpenak egingo dituela

Idazkariak bilkura grabatuko du

A continuación el alcalde informa que tal y como se solicitó, en la sesión de hoy se encuentra presente el traductor de la Mancomunidad de Sakana, Koldo Azkona, quien realizará las traducciones.

El Secretario grabará la sesión

1.- AURREKO AKTAK/ Actas anteriores

Alkateak bilkurari hasiera eman eta 2013ko apirilaren 8an eta maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuren aktak

El Sr. Presidente levanta la sesión y una vez revisadas, y realizadas las correcciones solicitadas por Doña Maider Goñi referentes a los puntos 7, 8 y 9 de la sesión del día 8 de abril

aztertu, eta Maider Goñi andreak eskatutako zuzenketak 2013ko apirilaren 8ko aktan egin, eta jarraian onartu dira:

7. puntua. Zergatia gehitu: Puntu honetan abstenitu egin gara proiektua jaso ez dugulako eta, ondorioz, ezin dugulako baloraziorik egin.

8. puntua. Abstenitu egin gara mozioaren funtsa diru xahuketa baita, eta ez egin behar denetz. Gastua Europar Batasunak finantzatu du, beraz, agian diru zati bat aurreratu behar bada ere, gastua ez du Nafarroako Gobernuak ordainduko.

9. puntua. Hau ez da zehazki zuzenketa, baizik eta puntu honetan trataera edo izendapen bera ematea zinegotzi guztiei. PPkoaren kasuan abizena jartzen du soilik, NABaiko zinegotzien kasuan izen-abizenak, taldea aipatu gabe, eta Bilduko zinegotzien kasuan soilik taldearen izena aipatzen du.

de 2013, se aprueban las actas de las sesiones celebradas el 8 de abril y el 10 de mayo de 2013.

7º punto. Añadir: En este punto nos abstenemos, ya que, al no haber recibido el proyecto, no podemos, en consecuencia, realizar ninguna valoración sobre el mismo.

8º punto. Nos abstenemos ya que en fundamento de la moción es un despilfarro de dinero. El gasto será financiado por la Unión Europea, y, por tanto, aunque se tenga que adelantar una parte del dinero, el gasto no lo pagará el Gobierno de Navarra

9º punto. Esta no es propiamente una corrección, sino subrayar la necesidad de dar un mismo trato y denominación a todos los concejales/as. En el caso del edil del PP únicamente aparece su nombre, en el caso de los de NABai, los nombres y apellidos, sin mencionar el grupo político al que pertenecen, y en lo que a los de Bildu se refiere, solo aparece el nombre del grupo.

2.-ALDERDI POPULARRAREN ZINEGOTZIAK EGINDAKO BAIEZTAPENAK GAITZESTEA /Reprobación de las afirmaciones públicas hechas por el concejal del Partido popular.

Alkateak azaldu du gaitzesten dituela Juan Antonio Extremera jaunak egindako baieztapen faltsuak. Ezinezkoa da Etxarri Aranazko Udalak existitzen ez den Bilkurako Akordiorik ez betetzea. Horregatik guztiagatik, Juan Antonio Extremera jaunari publikoki zuzentzeko exijitzen dio.

Juan Antonio Extremera jaunak onartzen du eta azaldu du prentsaren bitartez ezagutu zuela Nabai eta Bildu udal taldeek adostutako zaborra biltzeko sistema berriaren inguruko akordioa. Akordio horretan aipatzen ziren jarraipena egiteko batzorde bat eta herri kontsulta bat.

El Alcalde toma la palabra para manifestar su reprobación sobre las afirmaciones falsas realizadas por Don Juan Antonio Extremera. Es imposible que el Ayuntamiento de Etxarri-Aranatz incumpla acuerdos de Pleno que no existen. Por ello, exige a Don Juan Antonio Extremera una rectificación pública.

Don Juan Antonio Extremera toma la palabra para manifestar que lo reconoce, que tuvo conocimiento por la prensa del acuerdo alcanzado entre los grupos municipales de Nabai y Bildu sobre la gestión del nuevo sistema de recogida de basuras. En dicho acuerdo se reflejaba la existencia de una comisión de seguimiento y una consulta.

3.-NABAIK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ATEZ ATE / Moción presentada por NABAI: puerta a puerta

Alkateak mozioa sinatu duen NABAiko zinegotizari, Miguel Angel Goñiri, hitza eman dio mozioa azal dezan.

Miguel Angel Goñi jaunak azaldu du mozioa eztabaidatzeak ez daukala inongo zentzurik alde zuzenetik mozioaren xedea erabakita dagoenean.

Juan Antonio Extremera jaunak azaldu du mozioak antza handia daukala 2013ko apirilaren 8ko bilkuran berak aurkeztutako mozioarekin.

Ondoren gaia bozkatu da, eta udalbatzak erabaki du mozioaren testua ez onartzea: Juan Antonio Extremera jaunak, Maider Goñi andreak eta Miguel Angel Goñi jaunak alde bozkatu dute; Bilduko zinegotziak kontra.

Mozioaren testua:

ETXARRI ARANAZKO NABAIGURE HERRIAN HONDAKINAK BILTZEKO EZARRIKO DEN SISTEMAREN INGURUAN AURKEZTEN DUEN MOZIOA

2012ko urrian udal erregistroan gure herrian hondakinak biltzeko ezarriko den sistemaren inguruko mozioa aurkeztu genuen.

Aipatutako mozioa eta alkatetza taldeak (BILDU) aurkeztutakoa (Bildu Sakanako Mankomunitateak sustatutako atez ateko sistemaren defendatzailea da) ez dira Osoko Bilkuran eztabaidatu bi taldeok mahai gainean utzi baieketen izandako elkarrizketen bidez bi taldeen arteko sistema adostua lortzen genuen jakin arte.

Egungo sistemarekin baino birziklatze ehuneko handiago lortzeko, Etxarri Aranazko NaBaik kontuan hartu dituen hainbat aukeren artean honako hau proposatzen du gure herrirako: zabor organikoaren kasuan banakako konpostajea edota kolektiboa eta 5. edukiontzia. Informazio eta laguntza egokia eman gero, baliozko aukera izan liteke, eta atez ateko sistemak baino eragozpen eta deserosotasun gutxiago sortuko lieke bizilagunei haien

El Sr. Alcalde da la palabra a Miguel Angel Goñi, concejal del grupo municipal Nabai que ha firmado la moción presentada para que expongan la moción presentada.

Don Miguel Angel Goñi toma la palabra para manifestar que no tiene sentido debatir una moción cuando el objeto de la misma está ya decidido previamente.

Don Juan Antonio Extremera toma la palabra para manifestar que la moción es muy similar a la presentada por el mismo en la sesión del día 8 de abril de 2013.

Acto seguido se ha procedido a la votación no siendo aprobada la moción por el pleno: voto favorable de Don Juan Antonio Extremera, Doña Maider Goñi y Don Miguel Angel Goñi, voto en contra de todos los concejales de BILDU.

Texto de la moción:

MOCION QUE PRESENTA NABAI DE ETXARRI-ARANATZ EN EL AYUNTAMIENTO DE ETXARRI ARANATZ PARA SU DEBATE EN EL PLENO EN RELACIÓN CON EL SISTEMA DE RECOGIDA DE RESIDUOS A IMPLANTAR EN NUESTRO PUEBLO

El pasado mes de octubre presentamos en el registro del Ayuntamiento una moción en relación con el sistema de recogida de residuos a implantar en nuestro pueblo.

Dicha moción así como la presentada por el grupo de la alcaldía (Bildu), defensor del sistema "puerta puerta" promovido por la Mancomunidad de Sakana, siguen sin ser debatidos en Pleno del Ayuntamiento porque ambos grupos acordamos dejar encima de la mesa dichas mociones hasta saber si a raíz de las conversaciones o reuniones entre ambos grupos llegáramos a un acuerdo.

Entre las diferentes opciones que se han barajado y con el fin de alcanzar unos porcentajes de reciclaje más ambiciosos que con el sistema actual NaBai de Etxarri-Aranatz se muestra dispuesto a plantear para nuestro pueblo un sistema basado en el compostaje individual o colectivo y un 5º contenedor para los residuos orgánicos que, con la debida información y ayuda,

eguneko ohituretan. Sistema honetan datza: konpostaje komunitario guneak ezartzea, behar bezala itxiak eta egokituak, 25-40 erabiltzailek parte-hartuko dute eta bizilagunek frakzio organikoko zaborrak botatzeko ordutegi askatasuna izanen dute. Beste frakzioetarako edukiontzia (ontzi arinak —edukiontzi horia—, papera-kartoa —edukiontzi urdina— eta errefusa —edukiontzi berdea—) gune itxietan jarriko dira, eta erabiltzaile bakoitzak sarbide-giltza izango du gunearen arabera, hain zuzen ere, gune bakoitzeko edukiontzien giltza desberdina izango dute, eta horrek bizilagunei zaborra botatzeko ordutegi askatasun handiagoa izango emango die. Sistema hau Sakanako Mankomunitateak berak proposatu du Arakil, Irañeta, Arruazu, Ergoiena eta Ziordia herrietan.

Hori guztia ikusirik, eta aurrerago aurkeztutako mozioaren ildoari jarraikiz, Etxarri Aranazko NaBaik erabiltzaileek zabor-bilketa sistema desberdinen artean aukeratzeko askatasuna izan dezaten eskatzen du, eta Udalak erabiltzaileek libreki aukeratzeko sistema ezar dezan. Gure ustez, nahitaezkoa da azkenik Etxarri-Aranatzen ezarriko den sistemak bizilagunen oniritzia izatea, sistemen inguruko informazioa jaso eta gero. Etxarri-Aranazko NaBaik uste dugu Udalak modu honetan jokatzuz gero, etxarriarren arteko elkarbizitza handiagoa eta hobea izanen da.

Arestian esandako guztiagatik, Etxarri-Aranazko NaBai taldeak udal Batzarrari honako akordioak aurkeztu dizkio bertan bozkatuak izan daitezten:

1. Etxarri-Aranazko bizilagunei zuzendutako informazio kanpaina egitea. Bertan atez ateko sistema, eta konpostajea eta beste frakzioetarako edukiontzi sistema azalduko lirateke.
2. Etxarri-Aranatzen herri-galdeketa egitea bizilagune zein sistema nahi duten jakiteko.
3. Etxarri-Aranazko Osoko Bilkurak herri-galdeketa emaitza onartzeko konpromisoa hartzen du, eta Sakanako Mankomunitatearen aurrean beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu emaitza errespetatua izan dadin.

podría ser una opción válida con un menor trastorno e incomodidad para las costumbres diarias de nuestros vecinos y vecinas que el “puerta a puerta”. Este sistema consiste en la colocación de zonas de compostaje comunitario, debidamente cerradas y acondicionadas, en el que participarán distintos usuarios 25-40 depositando en ellas la fracción orgánica de los residuos con libertad de horario. Para el resto de fracciones (envases ligeros, papel-cartón y fracción resto) se colocarían contenedores en zonas cerradas con llave de acceso para cada usuario por zona /los contenedores de cada zona tendrían diferente llave con una mayor libertad horaria para los vecinos y vecinas a la hora de verter la basura. Este sistema ha sido propuesto por la propia Mancomunidad en municipios como Arakil, Irañeta, Arruazu, Ergoiena o Ziordia.

En vista de todo ello y en coherencia con la moción anteriormente presentada NaBai de Etxarri-Aranatz pide que los usuarios tengan libertad de elección entre los distintos modelos de recogida que se presenten en el Ayuntamiento y éste estar dispuesto a implantar los modelos que los usuarios decidan libremente. Nos parece imprescindible que el sistema que finalmente se implante en Etxarri Aranatz cuente con el beneplácito de sus vecinas y vecinos una vez que se les informe sobre uno y otro. En Na Bai de Etxarri-Aranatz estamos convencidos de que si el Ayuntamiento actúa de esta forma, la convivencia entre los etxarriarras será mayor y mejor.

En consecuencia, NaBai de Etxarri-Aranatz somete a la consideración del Pleno del Ayuntamiento la adopción de los siguientes acuerdos:

- 1- Desarrollar una campaña informativa dirigida a las vecinas y vecinos de Etxarri Aranatz en la que sean explicados el sistema puerta a puerta y el sistema de compostaje con contenedores para el resto de fracciones.
- 2- Convocar la consulta popular en el término de Etxarri Aranatz con el fin de conocer la preferencia de sus vecinos y vecinas con uno u otro sistema.
- 3- El Pleno del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz se compromete a acatar el resultado de dicha consulta y adoptar las medidas necesarias ante la Mancomunidad de Sakana para que sea respetado en su término.

4.- ALDERDI POPULARRAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ENPLEGUA SUSTATZEA / Moción presentada por PP: promoción de empleo.

Alkateak mozioa aurkeztu duen zinegotziari, Juan Antonio Extremera jaunari, hitza eman dio.

Juan Antonio Extremera jaunak azaldu du gehiegikeria bat dela miloi bat euro gastatzea emaitza txarrak emango dituen zaborra biltzeko sistema berri batean. Bere iritziz, dirua gastatu beharko litzateke beste gauza batzuetan, ekintzaileei babesa emateko, adibidez. Aldi berean, azaldu du herritarrei galdetu behar zaiela gastua egin baino lehenago eta ez gastua egin eta gero. Sistema berriak funtzionatzen ez badu eta herritarrek sistema berriaren aurka azaltzen badira gastua egin eta gero, gastuak berak ez du izango inongo zentzurik.

Maider Goñi zinegotziak NABAik kontra bozkatu behar duela adierazi du ondoko arrazoiengatik: gai desberdinak nahasten direlako, mozioa Sakanako Mankomunitatean aurkeztu beharko litzatekeelako eta epez kanpo aurkeztu dela ulertzen dutelako.

Hurrengo testua irakurri baino lehenago, Aitor Karasatorre jaunak testuaren itzulpena eman dio Juan Antonio Extremera jaunari:

**BILDU UDAL TALDEAREN ERANTZUNA,
ALDERDI POPULARREKO ZINEGOTZIAK
ALTSASUKO, OLAZTIKO, ETXARRI
ARANAZKO ETA UHARTE ARAKILGO
UDALETAN AURKEZTUTAKO MOZIOARI**

“Duela hilabete batzuk Sakanako Mankomunitatea lanean hasi zen hondakinen bilketarako sistema berria ezartzeko. Sistema horren helburu bakarra da hondakin kopuruaren tasak hobetzea, gaur egun gure ibarrean %25ekoak baitira.

Horretarako, Sakanako udalekin lankidetzan aritu da, sistema berriak ahal den herritar gehienek adostasuna izan dezan eta udalerrri bakoitzaren errealitatera ahal den ondoen egokitu dadin.

El Sr. Alcalde da la palabra al concejal que ha presentado la moción, Don Juan Antonio Extremera.

Don Juan Antonio Extremera toma la palabra para manifestar que es excesivo gastar un millón de euros en un sistema que en realidad no da buenos resultados. En su opinión debería gastarse el dinero en otros temas como el apoyo a emprendedores. Asimismo considera que debería preguntarse a los vecinos antes de hacer el gasto y no después. Si el nuevo sistema no funciona y los vecinos se posicionan en contra después de hacer el gasto, este no habrá tenido ningún sentido.

D^a Mainer Goñi indica los motivos por lo que van a votar en contra: se están mezclando cuestiones diferentes, entiende que esta moción debiera haberse presentado en la Mancomunidad de Sakana y entienden que se ha presentado fuera de plazo.

El Sr. Aitor Karasatorre toma la palabra para dar lectura al siguiente texto facilitando previamente una traducción del mismo a Don Juan Antonio Extremera:

**RESPUESTA DEL GRUPO
MUNICIPAL DE BILDU A LA MOCIÓN
PRESENTADA POR EL CONCEJAL DEL
PARTIDO POPULAR EN LOS
AYUNTAMIENTOS DE ALSASUA,
OLAZAGUTIA, ETXARRI ARANATZ Y
UHARTE ARAKIL**

“La Mancomunidad de Sakana lleva varios meses trabajando en la implantación de un nuevo modelo de recogida cuyo único objetivo es mejorar las tasas de recogida selectiva que en la actualidad en nuestra Comarca se sitúa en torno al 25%.

Para ello, viene trabajando con los ayuntamientos de Sakana para que la implantación del nuevo modelo sea lo más consensuado posible y adaptado a la realidad de cada población. Además se han realizado

Horretaz gain, hainbat bilera egin dira herritarrei beren herrian ezarriko den sistema azaltzeko. Horren guztiaren ondorioz, bilketa sistema berria ekainean ezarriko da. Sistema horretan, orain artekoa eta bi sistema berri konbinatuko dira, eta horrela izanen da harik eta ukitutako udalek berri bat ezarri nahi dutela Mankomunitatearekin adosten ez duten arte.

Bi eredu berriei esker, hondakin organikoak herrietan bildu eta bertan tratatuko dira, eta, beraz, ez dira gainerakoekin nahastuko. Sistema hori ondoko herri hauetan erabiliko da: Irañeta, Ziordia, Arruazu, Etxarri Aranatz, Olazti, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Lakuntza, Arbizu, Lizarraga, Unanu, Dorrao eta Arakilgo kontzeju guztietan.

Auzokonpostaren nahiz etxez etxe konpostajearen alde egin den apustuak berekin ekarriko du, lehenik eta behin, Sakanako 2.500 familiak baino gehiagok parte hartuko dutela hondakin organikoen tratamenduan eta, horri esker, hondakin horiek ez dira ez bildu, ez inongo plantara eraman behariko.

Mankomunitateak behin baino gehiagotan azaldu du zergatik egin duen auzokonpostaren aldeko apustua eta sistema horrek zer abantaila dituen bosgarren edukiontzia aldean. Argi eta garbi utzi du, gainera, egin diren hitzaldi eta bilera guztietan. Era berean, esan du Mankomunitateak eskainiko duela hainbatek eskatu duten bosgarren edukiontzia. Izan ere, Sakanan bosgarren edukiontzia "auzokonposta" izena emango zaio. Auzokonpostaren bidez, erabiltzaileak sortzen dituen hondakinak ondoen datorcion ordutegian bota ditzake edukiontzira. Gainera, bosgarren edukiontzia gertatzen ez den bezala, hondakin horiek sortzen diren tokian bertan konpostatuko dira, hau da, ez ditu kamioi batek jaso eta planta batera eraman behariko, han tratatzeko. Gainera, Mankomunitateak auzokonposta egiten duten herritarrei zaborraren tasan %15eko hobaria aplikatuko die. Bosgarren edukiontzia eskatzen duenak etxe ondoan izango du, auzo-konpostagailuetan.

Hondakinak kudeatzen dituzten entitate askok auzokonpostaren aldeko apustua egin dute, abantaila asko dituelako bosgarren

decenas de reuniones con los habitantes de los distintos municipios donde se ha explicado el sistema que corresponde a cada población.

Fruto de todo ello va a ser la implantación en el mes de junio del nuevo sistema en el que se van a combinar dos nuevos modelos con el actual, que se mantendrá mientras que por los ayuntamientos afectados no se acuerde con la Mancomunidad la implantación de uno nuevo.

Estos dos nuevos modelos comportarán que la fracción orgánica o bien se recogerá y tratará en las distintas poblaciones – es el caso Irañeta, Ziordia, Arruazu, Etxarri Aranatz, Olazti, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Lakuntza, Arbizu, Lizarraga, Unanu, Dorrao y todos los concejos del ayuntamiento de Arakil de forma que se dejará de mezclar dicha fracción con el resto.

La apuesta por el compostaje –tanto doméstico como comunitario– va a suponer que inicialmente más de 2.500 familias de Sakana participen en este sistema de tratamiento de la fracción orgánica, que implica que las toneladas de residuos orgánicos que generen no deberán de ser recogidas ni transportadas a ninguna planta para su tratamiento.

La Mancomunidad viene explicando por qué su apuesta por el compostaje comunitario y qué ventajas comporta éste sobre el quinto contenedor. Lo ha explicado claramente en todas las charlas y reuniones que se han celebrado, indicando que en Sakana el quinto contenedor que algunos reivindican ya se va ofrecer. El quinto contenedor en Sakana se va a llamar "compostaje comunitario". El compostaje comunitario permite que el usuario deposite, en el horario que mejor le convenga, los residuos orgánicos que genere, pero con la ventaja sobre el quinto contenedor que esos residuos ya no tendrán que ser recogido por un camión y trasladados a una planta para su tratamiento, sino que compostarán in situ. Además, la Mancomunidad va a aplicar la bonificación del 15% de su tasa a todos los que participen de este sistema de compostaje comunitario. Quien reivindique el 5º contenedor lo va a tener junto a su domicilio en los compostadores comunitarios.

El compostaje comunitario está siendo

edukiontzien aldera.

Gainera, hasiera batean sistema ezartzeko aurreikusitako gastuak asko murriztu dira, hain zuzen ere, 1.017.000 eurotik 750.000 euro ingurura. Esan beharra dago, bestalde, gastuen zati handi bat (%68 gutxi gorabehera) izan dela Sakanako hornitzaileek egindako lanak ordaintzeko.

Izan ere, Sakanako hainbat enpresa eta profesionalak hondakinen bilketarako hainbat produktu egin dituzte. Hona hemen zein diren egindako lanetatik gastuaren zati bat (%68) jaso dutenak: Carpintería Garcíandía SL, Carpintería Lizarraga SL, Suministros SUTEK SL, Sendolurra SLU, Talleres Irulizar SLL, Red Integral de Servicios S. Coop., Igoakin Estudio Arquitectura, GERTU S.C., Piensos Unamuno S.L., SAKANA LASER S.A., Gráficas Sakana S.L., Suministros Aritzalko SL, TXARTEL Kopia SL., IRURA materiales y complementos de Construcción SL, Kate Informática SL, Bierrik Fundazioa, Eloy Macías Excavaciones, SDI Imprenta IJURGOI SL, SKAKOMUNIKA..., son quienes han percibido ese 68% del gasto realizado para los nuevos modelos de recogida, y quienes han visto mejorada su situación económica y de empleo por el gasto realizado por la Mancomunidad.

Mankomunitateak eta ibarreko zenbait enpresa laguntzailek ikerketa eta garapen lana egin dute, eta lan horren emaitza da honako elementu hauen diseinua: hondakinak ekartzeko guneak, larrialdi guneak, bilketarako zurezko zutoinak eta zurezko auzo-konpostagailuak. Horiek guztiak aztertzen ari dira beste mankomunitate eta udal batzuk, eta, horri esker, Sakanako enpresak aukera izan dute elementu horien eskaerak jasotzeko.

Jarrera demagogikoa erabiliz ez bada, ezin zaio egindako proposamenari eutsi, hau da, "atez ateko bilketa sistema ezartzeko aurreikusi den dirua (1 milioi euro baino gehiago) enplegua sortzeko eta ekonomia jarduera bultzatzeko erabiltzea".

Mankomunitateak bi bilketa eredu berri ezarriko ditu, ez bakarrik atez atekoa; milioi euro horiek ez ditu gastatuko; eta, inbertsioak eginda —

la apuesta de muchas entidades locales que gestionan los residuos por sus ventajas frente al quinto contenedor.

Los gastos inicialmente previstos de implantación, en torno 1.017.000 euros, se han visto reducidos en la actualidad a un total –aproximado– de 750.000 euros. Hay que indicar que –aproximadamente– un 68% se invertido en gasto que se realizado con proveedores o suministradores de Sakana.

Empresas o profesionales tales como, Carpintería Garcíandía SL, Carpintería Lizarraga SL, Suministros SUTEK SL, Sendolurra SLU, Talleres Irulizar SLL, Red Integral de Servicios S. Coop., Igoakin Estudio Arquitectura, GERTU S.C., Piensos Unamuno S.L., SAKANA LASER S.A., Gráficas Sakana S.L., Suministros Aritzalko SL, TXARTEL Kopia SL., IRURA materiales y complementos de Construcción SL, Kate Informática SL, Bierrik Fundazioa, Eloy Macías Excavaciones, SDI Imprenta IJURGOI SL, SKAKOMUNIKA..., son quienes han percibido ese 68% del gasto realizado para los nuevos modelos de recogida, y quienes han visto mejorada su situación económica y de empleo por el gasto realizado por la Mancomunidad.

El trabajo de investigación y desarrollo realizado por la Mancomunidad y alguna empresa de la zona colaboradora ha permitido crear un diseño de áreas de aportación, puntos de emergencia, postes de recogida de madera y compostadores comunitarios de madera que está siendo analizada por otras mancomunidades y ayuntamientos, que está permitiendo a las empresas de Sakana recibir pedidos de tales elementos.

No se puede sostener -si no es desde una posición demagógica- la propuesta de "destinar a la creación de empleo y fomento de la actividad económica el dinero previsto (más de 1 millón de euros) para la implantación del sistema de recogida "puerta a puerta".

La Mancomunidad va a implantar dos nuevos modelos de recogida, no sólo el puerta a puerta, no va a gastar ese millón de euros y, además, con las inversiones realizadas -tal como se ha indicado- está sosteniendo el empleo y fomentando la actividad económica

zehaztu den bezala—, enpleguari eusteaz gainera, ezarpenean laguntzen ari diren enpresen ekonomia jarduera ere bultzatzen ari da, kontuan hartuta enpresa horiek, gehienak, Sakanan kokatuta daudela.

Bestalde, gizarteratutako mezua demagogikoa da, eta, gainera, gezurra da esatea Mankomunitateak diru hori enplegua sortzeko gastatu ahal duela. Lehenik eta behin, Komunitateak gai horretan oso eskumen mugatuak ditu —eskumenik ez duela esaten ahal da—, eta, bigarrenik, hondakinak gaika biltzeko eredu berriak ezartzeko izanen den gastu guztia finantzatuko da gastu horretatik eratorritako diru sarrerekin. Beste modu batez esanda, diru-laguntza, banku kreditu edo bilketa tasetatik etortzen diren sarrerak soilik gastatzen ahal dira hondakinen bilketari edo tratamenduari lotutako jardueretan, beste ezertan ez. Helmugari lotuta dago, adibidez, eskatutako kredituaren kostu finantzarioa amortizatuko delako kartoi eta ontzi gehiago bilduta eta horiek salduta lortuko diren diru-sarrerekin. Era berean, zati bat tasen bidez finantzatuko da, egungoa handitu gabe.

Hondakinetatik datorren dirua beste gauza batzuetan gastatzeko proposatzen duenak ez ditu ezagutzen aurrekontuen gaineko legedia eta mankomunitateen finantzaketa.”

Juan Antonio Extremara jaunak errepikatu ditu mozioan agertzen diren argudioak.

Aitor Karasatorre jaunak azaldu du Sakanako Mankomunitateak hautatu duela PIGRN delakoak jasotzen dituen sistematako bat eta egingo den inbertsioa ez dela itzulezina izango. Aitzitik, AHTko eta Autopista Elektrikoko inbertsioak itzulezinak direla argudiatu du. Bukatzeko azaldu du aurreikusi dela beharrezkoa den inbertsioa 3 urte barru berreskuratuko dela.

Ondoren gaia bozkatu da, eta udalbatzak erabaki du mozioaren testua ez onartzea: Juan Antonio Extremara jaunak alde bozkatu du; Bilduko zinegotziak eta Nabaiko Zinegotziak kontra.

Mozioaren testua:

de las empresas que están colaborando en la implantación, las cuales en su mayor parte son empresas radicadas en Sakana.

Por otro lado, no sólo es demagógico el mensaje que se ha querido transmitir a la sociedad sino que es mentira que ese dinero se pudiera gastar por la Mancomunidad en la creación de empleo. En primer lugar, porque las competencias en esa materia son muy limitadas, por no decir nulas y en segundo, porque todo el gasto que se va a producir en la implantación de los nuevos modelos de recogida selectiva de residuos se financiará con ingresos afectados a esos gastos. Dicho de otro modo, los ingresos que provengan de subvenciones, créditos bancarios o tasas por recogida sólo pueden ser gastados en el actividades relacionadas con la recogida o tratamiento de los residuos, y en nada más. Hay una afectación del destino, porque –por ejemplo- el coste financiero del crédito solicitado se va a amortizar con los ingresos derivados de la recogida de más cartón y envases, y de su venta, así como parte se financiará vía tasas, sin un incremento de la actual.

Proponer gastar el dinero proveniente de los residuos para otras cosas es desconocer lo que dice la legalidad presupuestaria y la financiación de las mancomunidades.”

Don Juan Antonio Extremara toma la palabra para insistir en los argumentos reflejados en su moción.

Don Aitor Karasatorre toma la palabra para manifestar que la Mancomunidad de Sakana ha optado por uno de los sistemas recogidos en PIGRN y que la inversión no puede considerarse en ningún caso como irreversible a diferencia de otras como el TAV o la Autopista Eléctrica. Asimismo se prevé que la inversión realizada se recuperará en un plazo de 3 años.

Acto seguido se procedido a la votación no siendo aprobada la moción por el pleno: voto favorable de Don Jaun Antonio Extremara, voto en contra de todos los concejales de BILDU y de NABAI.

Texto de la moción:

Juan Antonio Extremera jaunak, Etxarri Aranazko udalean zinegotziak hurrengo eskaera aurkeztu du, uztailean eginen den Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartu dadin: Sakanako Mankomunitatean enplegua sustatzeko dirulaguntza, “atez ate” izeneko zabor bilketa sistamarako erabil dadila.

ARRAZOIEN AURKEZPENA

Sakanako mankomunitatea pausu berriak ematen ari da “atez ate” izeneko bilketa berria ezar dadin. Inplantazio berri hau, herritarren gehioengoaren onespenez gabe, eta beraien iritzia kontutan hartu gabe egin nahi da, bere egokitasuna, onurak, kostuak eta hobekuntza kontutan hartu gabe egin nahi dute.

Leku ugarietako herritarrek beren desadostasuna azaldu dute atez ateko bilketari buruz, hala nola, Altsasuan, Olazagutian, eta baita Irurtzunen ere.

Atez ateko sistemak alternatiba argia dauka, bosgarren edukiontzia. Bosgarren edukiontzia erabiltzen den gainerako zaborra biltzeko baliozko aukera da, behin eta berriz probatua, eta gaur egun martxan dagoen sistema da. Europako Batzordeak eta Nafarroako Gobernuak onestutako politikak ditu.

Nahiz eta oraindik behin betiko daturik ez dagoen, estimazio batzuen arabera atez ateko sistema Sakanan ezartzeko kostua edo aurrekontua milioi bat eurokoa izango litzateke.

Aurrekontu hau kontuan harturik, eta Barranka gaur egungo krisi ekonomikoa dela eta, ehun ekonomikoa, eta lan merkatua ahuldurik daude, eta, ondorioz, langabezia igo da.

Egoera larria denez, bertako instituzioen erabateko elkartasuna eta adostasuna behar dira, jarduera ekonomiko berriak sustatzeko eta onartzeko, eta, oro har, baldintza hobekak indartu behar dira enpresariengatik, eta langileena sustatzeko.

Juan Antonio Extremera, concejal del PP en el Ayuntamiento de Etxarri-Aranatz, presenta, para su debate y aprobación en el pleno correspondiente al mes de julio, la siguiente moción para instar a la Mancomunidad de Sakana a que destine a la promoción de empleo el dinero previsto para la implantación del sistema de recogida de basuras denominado “puerta a puerta”.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Mancomunidad de Sakana está dando nuevos pasos para proceder a la implantación del sistema de recogida de basuras conocido como “puerta a puerta”. Dicha implantación se va a producir sin contar con el apoyo unánime de las entidades locales de la comarca y sin tener en cuenta la opinión de los habitantes en relación con un nuevo sistema que ha generado importantes dudas sobre su idoneidad, sus beneficios, los costes y la mejora con respecto a la situación actual.

Vecinos de diferentes localidades, como por ejemplo Alsasua, Olazagutía e Irurzun, han mostrado ya su disconformidad con el sistema puerta a puerta.

El sistema puerta a puerta tiene una alternativa clara y se denomina quinto contenedor. El quinto contenedor, que se utiliza para recoger la opción resto de las basuras, es una opción válida, ya probada, contrastada y que se encuentra en estos momentos plenamente operativa. Cuenta además como avales las propias políticas que desarrollan la Comisión Europea y el Gobierno de Navarra.

Si bien en estos momentos no se dispone de datos definitivos, algunas estimaciones cifran el gasto necesario para implantar el puerta a puerta en La Barranca en más de un millón de euros.

Frente a esta previsión de gasto, la Barranca se ha visto especialmente afectada por la actual crisis económica, que ha perjudicado y debilitado notablemente el tejido económico y el mercado laboral, lo que ha supuesto un fuerte incremento del paro.

Esta grave situación hace necesaria la total implicación por parte de las instituciones de la comarca en propiciar el apoyo a la generación de nuevas actividades económicas, la creación de empleo y, en definitiva, crear las mejores condiciones posibles para favorecer la actividad de empresarios, trabajadores y emprendedores en su conjunto.

La creación de empleo debe ser, por tanto, la prioridad fundamental en estos momentos, también a corto y medio plazo, para las entidades públicas de la Barranca, tanto los ayuntamientos, como de la propia

Lanpostuen sorkuntzak izan behar du, hala beharrez, momentu hauetan lehentasuna, baita epe laburrean ere, Sakanako erakunde publikoentzat, udaletan zein Sakanako Mankomunitatean.

Hori dela eta, Etxarri Aranazko Udalak Sakanako Mankomunitateari honako hauek eskatzen dizkio:

1.- “Atez ateko” zabor bilketa sistema ezartzeko diru-laguntza (milioi bat euro baino gehiago) enplegua eta aktibitate ekonomikoa sustatzeko erabil dadila.

2.- Sakanako Mankomunitatearen aurrekontu eta jardueretan enpleguaren sormenari lehentasuna ematea.”

Mancomunidad de Sakana.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Etxarri-Aranatz insta a la Mancomunidad de Sakana a:

1.- Destinar a la creación de empleo y fomento de la actividad económica el dinero previsto (más de 1 millón de euros) para la implantación del sistema de recogida de basuras “puerta a puerta”

2.- Situar la creación de empleo como prioridad en los presupuestos y actividades que desarrolla la Mancomunidad de Sakana.”

5.-3MUGAK BATERA AURKEZTUTAKO ESKAERA / Escrito presentado por 3Mugak batera

Alkateak 3 mugak batera taldeak aurkeztu duen idazkiaren berri eman du.

Juan Antonio Extremera jaunak azaldu du gustatuko litzaiokeela jakitea zein izango den kartel hauen gastua. Bere iritziz, ezertarako balioko ez duen gauza batean diru publikoa ordaintzeak ez dauka inongo zentzurik. Zerbaitetarako balioko balu, eztabaidatuko litzateke.

Alkateak azaldu du Juan Antonio Extremera jaunak esandako hitzen arabera badirudiela Olaztikiko erraustegiak kezkatzen duela.

Juan Antonio Extremera jaunak azaldu du errausketak ez diola kalte egiten osasunari eta, horregatik, ez dela beharrezkoa gai honetan diru publikoa gastatzea. Iritzi ezberdina duten zinegotziak baldin badira, haien poltsikotik ordaintzen ahal dituzte kartelak.

Eneka Maiz andreak azaldu du Juan Antonio Extremera jaunak emandako argudioa Sinboloen Legearen inposaketan erabiltzen badugu, gastu hori ez dela beharrezkoa.

El Sr. Alcalde informa sobre el escrito presentado por 3 Mugak Batera y abre turno de debate.

Don Juan Antonio Extremera toma la palabra para manifestar que le gustaría saber cuánto costarán los carteles. En su opinión gastar dinero público en algo que no servirá de nada no tiene sentido. Si sirviera para algo podría debatirse.

El Alcalde toma la palabra para manifestar que por las palabra de Don Juan Antonio Extreera da la sensación de que le preocupa la incineradora de Olazagutía.

Don Juan Antonio Extremera toma la palabra para manifestar que la incineración no tiene efectos negativos sobre la salud y que por ello gastar dinero público en esta cuestión no es necesario. Si hay concejales que opinan de otra manera que paguen los carteles de su bolsillo.

Doña Eneka Maiz toma la palabra para manifestar que si aplicamos el argumento de Don Juan Antonio Extremera a la imposición de la Ley de Símbolos dicho gasto resulta innecesario.

Don Juan Antonio Extremera manifiesta

Juan Antonio Extremera jaunak azaldu du Sinboloen Legea ez dela inposaketa, lege bat baizik. Etxarri Aranatz Espainia barruan dago, eta, beraz, bere betebeharrak bete behar ditu.

Eneka Maiz andreak azaldu du Juan Antonio Extremera jaunaren argudioari jarraikiz gastuak beharrezkoak diren ala ez hitz egin dezakegula, sinboloak zein diren. Garratzitsuena da Udal honek kaltel horiek jarri nahi dituela.

Ondoren gaia bozkatu da, eta udalbatzak erabaki du 3Muga batea egin duen eskaera onartzea. Extremera jaunak kontra bozkatu du. BILDU udal taldeko zinegotziak eta NABAI udal taldeko zinegotziak alde.

Idazkiaren testua:

Olatzagutiko zementu-fabrikaren hondakinak erraustearen aurkako 3MB plataformak, honako mozio hau aurkezten du udalbatzaren aurrean onartua izan dadin:

Energia Balioztatzeko Planta baztertua izan zen Nafarroan, baina ez "hondakinen balioztatze energetikoa". Nafarroako Gobernuak, errausketa (Hondakin Planean "hondakinen balioztatze energetikoa deitua") hondakin kudeaketa sistema gisa baztertu ordez, Portland-ekin hitzarmena sinatu du Olaztiko FCC-ren plantan erraustu ditzaten.

Gainera, jarduera honen eraginpean geratuko diren eskualdeek adierazitako borondatearen kontra egin du hori, orain arte sekula erabili ez den ezohiko eta neurritz kanpoko tresna enpresa pribatu baten mesedetan lotsagabeki erabiliz, eta hau bihurtuz berez, komunitatean errausketa jarduera non kokatuko den erabakiko duena.

Oso arriskutsuak diren eta beste eredu batzuekin bidegabeko lehia egingo luketen praktikak baino, gutxitzean, berreskuratzean eta birziklatzean oinarritutako beste hondakin kudeaketa eredu batzuk gizakion osasunarekin, ingurumenarekin eta enpleguarekin askoz ere

que la Ley de Símbolos no es una imposición sino una Ley. Etxarri Aranatz está en España y por tanto debe cumplir con sus obligaciones.

Doña Eneka Maiz toma la palabra para manifestar que según el argumento de Don Juan Antonio Extremera dependiendo de la simbología podemos hablar de gasto necesario o no. Lo que importa es que este Ayuntamiento quiere poner estos carteles.

Acto seguido se procede a la votación siendo aprobada la petición por el pleno, con el voto en contra de Don Juan Antonio Extremera y el voto a favor de los concejales de BILDU y NABAI.

Texto de la petición:

La Plataforma 3MB en contra de la quema de residuos en la cementera de Olazti, presenta ante el pleno, para su aprobación, la siguiente MOCIÓN:

La Planta de Valorización Energética (Incineradora), fue descartada en Navarra, pero no la "valorización energética de residuos". El Gobierno de Navarra, lejos de descartar como forma de gestión de residuos la incineración (la llamada en el Plan de Residuos "valorización energética de residuos"), ha suscrito un convenio con Portland para que sea en la planta de FCC de Olazti donde se quemem.

Además, lo ha hecho pasando por encima de la voluntad de las zonas afectadas y de sus normativas, aplicando un instrumento abusivo y excepcional nunca antes utilizado para favorecer de una manera tan escandalosa a una empresa privada que se convertirá, de hecho, en la que determine el lugar de ubicación de la actividad de incineración en la comunidad.

Creemos que otras formas de gestión de residuos basadas en la reducción, la recuperación y el reciclaje son infinitamente más respetuosas con la salud de las personas, el medio ambiente y el empleo que unas prácticas muy peligrosas que, entrarían en clara competencia desleal con esas otras formas, haciéndolas inviables.

errespetutsuagoak direla uste dugu.

Hori dela eta, garrantzitsua deritzogu Udal honek gizartearen aurrean gizakion osasuna eta ingurumena babesteko duen konpromisoa adieraztea, aldi berean eta dagokionari, beste inon nahi izan ez duten errausketa-energia balioztatze jarduera horren kontrako eta errausketa inon beharrezkoa ez den praktika bihurtuko luketen zero hondakin helburutzat duten kudeaketa ereduaren aldeko mezua argia helarazteko ere balio dezan.

Horregatik, burua ondo daukanak errausketa ez badu bere etxe ondoan nahi, bihotz ona daukanak besteen etxe ondoan egiterik ere ez du nahi.

Hori guztiagatik ondorengo onartzeko ESKATZEN DIOGU UDALBATZARI:

- Herri sarreretan eranskinetako ezaugarriak eta goiburua luketen informazio-panelak paratzea.

Por ese motivo consideramos importante que este ayuntamiento proyecte hacia la sociedad su compromiso con la protección de la salud de las personas y del medio ambiente, que sirva además para informar y trasladar a quien corresponda un mensaje claro de oposición a unas prácticas de incineración-valorización energética de residuos, que nadie ha querido ni quiere que se realice en sus zonas, y a favor de otras formas de gestión tendentes al residuo cero que harían innecesaria la práctica de la incineración en ningún lugar.

Por ello, si con la cabeza rechazamos la incineración cerca de nuestras casas, con el corazón debemos hacer lo mismo cuando se pretende realizar cerca de las casas de los demás.

Por todo lo cual SOLICITAMOS AL PLENO para su aprobación lo siguiente:

- La colocación a las entradas del pueblo unos paneles informativos, con las características y lema según anexo que adjuntamos.

6.-HIRIGINTZAKO UDAL PLAN ALDAKETA ANTOLAMENDU XEHEKATUKO DETERMINAZIOENA / Modificación del Plan Municipal de Urbanismo: determinaciones pormenorizadas.

Etxarri Aranazko alkateak aurkeztu du hirigintzako Planaren aldaketa zehatzaren espedientea (antolamendu xehekatuko determinazioak), udal arkitektoak prestatua.

Miguel Angel Goñik gaia pendiente utzi nahi izan du beste baterako, aldaketa aztertze denborarik izan ez delako (ostegunetik, astelehenera). Alkateak aldaketa onartzeko dagoen premia azaldu ondoren, oraingoa hasiera bateko akordioa izango dela esan du, jende aurrean egongo dela eta aukera egongo dela aldaketak egiteko. Jarraian gaia bozkatu da, eta Udalbatzak honako hau ebatzi du aho batez:

1.-Hasiera batez onestea Etxarri Aranazko udalak sustatutako Hirigintzako Planaren aldaketa zehatzaren espedientea (antolamendu xehekatuko

El Sr. Alcalde presenta Modificación Puntual del Plan Municipal de Urbanismo de Etxarri Aranatz (Determinaciones de Ordenación Pormenorizada) encargada al arquitecto municipal.

El concejal Miguel Angel Goñi propone dejar el tema pendiente dado que, de jueves a lunes, no ha tenido tiempo suficiente para estudiar el tema detenidamente. El Alcalde le explica la urgencia en la aprobación y añade que el presente acuerdo se va a tratar de una aprobación inicial que va a estar en exposición pública y existe la posibilidad de realizar modificaciones posteriores. Se pasa a la votación.

Efectuada la misma, el Pleno por unanimidad acuerda:

1.-Aprobar inicialmente el expediente de Modificación Puntual del Plan Municipal de

determinazioak), Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan, 79.3 artikulutik hara igorrita, xedatutakoari jarraituz.

2.-Espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea, iragarkia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki oholean eta Foru Komunitateko egunkarietan jarrita.

Urbanismo de Etxarri Aranatz (Determinaciones de Ordenación Pormenorizada) promovido por el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz. de conformidad a lo dispuesto en el artículo 74, por remisión del artículo 79.3 de la Ley Foral 35/2002, de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

2.-Someter el expediente a información pública durante un mes, mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Navarra, tablón de anuncios y diarios editados en la Comunidad Foral.

7.-AURREKONTU ALDAKETAK / MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS.

Cederna Garalurren 2013ko Udal aurrekontuaren partida ez da nahikoa kuota ordaintzeko (ustez akats batengatik). Hori dela eta, kontu hartzaileak kreditu transferentzia baten bidez aurrekontu aldaketa bat egiteko proposatu du.

Idazkariak prozedura zein izan beharko den azaldu du.

Osoko Bilkurak erabaki du 2012/01 aurrekontu aldaketa hasiera batez onartzea. Juan Antonio Extremera jaunak kontra bozkatu du, eta BILDU udal taldeko zinegotziak eta NABAI udal taldeko zinegotziak, berriz, alde.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

La partida prevista en el presupuesto municipal del año 2013 para Cederna Garalur, por error, no es suficiente para cubrir la cuota por lo cual el interventor ha propuesto aprobar una modificación presupuestaria de transferencia de crédito. El Secretario explica el procedimiento a seguir para la tramitación de la misma.

El Pleno acuerda aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 01/2013, con el voto en contra de Don Juan Antonio Extremera y el voto a favor de los concejales de BILDU y NABAI.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 33 del Decreto Foral 270/1998, de 21 de septiembre, que desarrolla la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, en materia de presupuestos y gasto público, el expediente se expondrá en Secretaría durante quince días hábiles, a contar desde el siguiente al de publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

2013/01		Gastua/ Gasto		Zenbatekoa/ Importe
	771	8200	CEDERNA-GARALUR: KUOTA / Cuota	8.665,58
GUZTIRA / TOTAL				8.665,58

Finantzaketa/ Financiación			Zenbatekoa/ Importe
432	80	KONTINGENTZIA FUNTSA/ Fondo de contingencias	8.665,58
GUZTIRA / TOTAL			8.665,58

8.-CEDERNA GARALUR ETA SAKANAKO MANKOMUNITATEKO EUSKARA BATZORDEKO ORDEZKARIAK ALDATZEA / Modificación de representante en Cederna Garalur y en la Comisión de Euskera de la Mancomunidad de Sakana

Alkateak esan du gai pertsonalak direla eta, Araceli Erdozia andreak Sakanako Mankomunitateko Euskara Batzordeko ordezkari eta Cederna Garalurreko ordezkari utzi nahi dituela. Hori dela eta, Alkateak proposatu du ondoko biak udalaren ordezkari izendatzea: Felix Artzelai Iriarte jauna Sakanako Mankomunitatean eta Iker Mariñelarena jauna Galartza Cederna Garalurrean.

Osoko Bilkurak proposamena onartu, eta erabaki du:

1.-Ondoko biak Udaleko ordezkari izendatzea: Felix Artzelai Iriarte jauna, Sakanako Mankomunitateko Euskara Batzordean, eta Iker Mariñelarena Galartza jauna, Cederna Garalurrean.

2.-Akordioa hau Sakanako Mankomunitateari eta Cederna Garalurrean helaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez, 21:40ean alkate-lehendakariak Osoko Bilkura bukatu dela esan de, eta idazkariarekin batera akta sinatu du. Idazkariak horren fede ematen du.

El Sr. Alcalde informa que por razones personales Doña Araceli Erdozia desea dejar la representación del Ayuntamiento en la Comisión de Euskera de Mancomunidad de Sakana y en Cederna Garalur y por lo tanto propone designar a Don Felix Artzelai Iriarte como representante del Ayuntamiento en Mancomunidad de Sakana y a Don Iker Mariñelarena Galartza en Cederna Garalur

El Pleno acepta la propuesta y acuerda:

1.-Nombrar a Don Felix Artzelai Iriarte como representante del Ayuntamiento en la comisión de Euskera de la Mancomunidad de Sakana y Don Iker Mariñelarena Galartza como representante del Ayuntamiento en Cederna Garalur.

2.-Trasladar este acuerdo a la Mancomunidad de Sakana y a Cederna Garalur para su conocimiento y efectos oportunos.

Siendo las 21:40 y no habiendo mas temas a tratar se levanta la sesión por parte del Alcalde Presidente, firmando el acta conmigo el Secretario que certifico